

4.4.3. Esku hartzeko eta kudeatzeko prozesuak

Jarraian, esku hartzeko eta kudeatzeko Programaren prozesuetako batzuk aurkeztuko ditugu, bertan parte hartzen duten profesionalak estandarizatzeko egokitzat hartu dituztenak, hain zuzen:

Esku hartzeko prozesuak

- Esku hartzeko prozesu orokorra
- Baliabideetara igarotzeko prozesua

Kudeatze prozesuak

- Planifikatze prozesua (planifikatze prozesuaren atalean aurkeztu da)
- Udalerrian edo lurraldean programa ezartzeko prozesua
- Prestakuntzako ekintzak kudeatzeko prozesua

Prozesu bakoitzaren kasuan, prozesuaren deskribapen zehatza eta haren fluxuaren diagrama aurkeztu da. Horretarako, hartzaileen itxaropen zuhaitza eta oinarritzko prozesuaren kalitate ezaugarriak garatu ziren, baina nahikoa iritzi diogu prozesuaren deskribapena eta fluxuaren diagrama Programa Ereduan sartzeari.

Badira beste prozesu garrantzitsu batzuk, baina horiek estandarizatzeari ez zaio lehentasunik eman. Ondokoak dira:

Esku hartzeko prozesuak

- Adingabe eta gazteekin harremanetan hastera
- Adingabe eta gazteekin hezkuntzan esku hartzea
- Adingabe edo gazteen familiarekiko harremana
- Komunitateko eskuartzea (igarotzeko eta sentsibilizatzeko proiektuak)
- Gazteak proiektuetan inplikatzeko (autogestioa)
- Gazteen emantzipazio prozesua
- Eskuartzea ixtea (adingabe/gazte – hezitzailea aldentzea)

Ikusten denez, horiek guztiak eskuartze orokorraren barruan dauden azpi-prozesuak edo faseak dira. Epe ertainean, gomendagarria litzateke arlo horietako bakoitzean sakontzea.

Kudeatze prozesuak

- Programako taldea antolatzea (lan taldeak eratzea, udalerriko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan sartzeko)
- Hezitzaileak txandakatzea/ ordezkatzea
- Programa koordinatzea maila lokaleko beste arreta sistema batzuekin
- Beste arreta sistema batzuekin batera hautematea, eta maila lokaleko arreta sistemen artean deribatzea

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

- Hasierako ebaluaketa (banakakoa)
- Banakako edo taldekako hezkuntzako proiektuak egitea
- Gizarte komunikazioko bitartekiko harremana

Prozesuak formalizatzea funtsezko oinarria da prozesuen ebaluaketa egiteko.

4.4.3.1. ESKU HARTZEKO PROZESU OROKORRA⁷

Prozesuaren definizio sakonagoari dagokionez, kontuan hartu behar da zerbitzuak jadanik deskribatu ditugula, premiak/xedeak atalean hartzaileen itxaropen nagusiez jardun dugula, eta prozesuaren irteera-fluxuaren kalitate ezaugarriak adierazle sisteman azaltzen direla.

Orain, prozesuaren garapenari bereziki dagozkion alderdiak zehaztuko ditugu. Fase bakoitzean, hezitzaileek esku hartzeari buruz egindako ekarpen batzuk, prozesua eratzeo oinarritzakoak izan direnak, bildu ditugu.

Ikusiko denez, Programaren planifikatze sistemaren barruan sartu ditugu udalerrian (edo dena delako lurraldean) bi urtean behin egingo den programaren ebaluaketa, eta lau urteko epea burutzean egingo den ebaluaketen sintesia.

Era berean, lau urtean behin premien eta baliabideen ebaluaketa edo komunitatearen azterketa egingo da.

Aurreko aldian –Programa jadanik ezarririk balego–, egindako ebaluaketen sintesiari buruzko datuak eta komunitatearen azterketa oinarri hartuta, hurrengo lau urteetarako alderdi estrategikoak eta Programaren estrategiak antolatuko dira, eta, horrez gain, lehenengo bi urteetarako, udalerrian Programa garatzeko plana (kudeatzeko plana).

Premien eta baliabideen ebaluaketa (komunitatearen azterketa eta adingabe/gazte bakoitzaren edo adingabe/gazte taldearen arabera hasierako ebaluaketa)

Esku hartzeko prozesua⁸ arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen premien eta baliabideen (gaitasun eredua) ebaluaketarekin hasten da; horrekin batera, bizimodua bertan

⁷ Deskribatzen ari garen esku hartzeko prozesu orokor honetan, Programaren hezitzaileen lana besterik ez da azaltzen. Gizarte langileen lanaz hitz egiteko, bigarren programari dagokion lana bakarrik sartu beharko litzateke eta arretako beste dimentsioetarako egiten duten lana deskribatu. Halaber, arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak dituzten familiekin jarduten duten familia hezitzaile edo terapeutek edo etxez etxeko laguntzaileek egiten duten lana jaso beharko litzateke. Nolanahi ere, profesional guztiek egindako eskuartze generikoa esku hartzeko prozesu orokor honetan adierazten diren eginkizunetan sar daiteke.

⁸ Ebaluaketa esku hartzea ere bada, eta askotan ahaztu egiten da, nahiko astirik izateko zailtasunak daudenez, esku hartzea bereziki ekintzetara zuzentzen baita. Ezin da programa era hertsian ebaluatu, adingabe eta gazteek bizi izandako arrisku egoeraren funtsezko ildoak hartzen ez bada, adierazle sisteman oinarrituta. Ebaluaketa ez da, berez, helburua; taldeen hausnarketa bultzatu nahi du eta aktibismoa gailentzea saihestu; aktibismoak esku hartzea bidera baitezake ohikoa denaren ikuspuntutik, ordura arte eginda dagoenaren ikuspuntutik, ..., edo, maizago gertatzen dena, larrialdien ikuspegitik, gehienetan eskuartzea eskatu duen eta programa ezagutzen duenari begira,

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

egiten dutelako edota bertan txertatzea bultzatuko delako adingabe eta gazteei lotuta dauden ingurune komunitarioen ebaluaketa ere egiten da (ikuspegi aniztasuna).

Programak hartzen duen lurraldean hurbilerrazak diren adingabe/gazte eta inguruneek osatutako taldearen hasierako ebaluaketari "komunitatearen azterketa" deritzogu.

Bizimodua bertan egiten dutelako edota bertan txertatzea bultzatu delako adingabe eta gazteei lotutako inguruneen hasierako ebaluaketarekin batera egiten den adingabe/gazte bakoitzaren edo adingabe/gazte taldearen hasierako ebaluaketari hasierako banakako eta taldekako ebaluaketa deritzogu.

Biak adierazle sisteman oinarritzen dira (ikus planifikatze sistema), eta Programaren eginkizunetako bat betetzeko bide egokia osatzen dute, hau da, ordura arte udaleko gizarte zerbitzuetarako ezezagunak ziren adingabe eta gazteen arrisku egoerak zein arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak hautematea.

Biek, eta era berean bukaerako ebaluaketak, hurrengo baldintzak bete behar dituzte:

a) geroko ekintzaren deskribapena, balorazioa eta orientazioa eduki behar dituzte (ikus komunitatearen azterketaren eskema eta banakoari eta taldeari buruzko txostena, planifikatze sisteman)

b) ebaluaketarako iturriak diren elementuak barne eduki behar dituzte: Programaren hezitzaileak, gizarte langileak, tutoreak, astialdiko monitoreak, familia eta adingabe edo gaztea bera (ikus ebaluaketa fitxa, planifikatze sisteman).

Komunitatearen azterketa eta hasierako banakako edo taldekako ebaluaketa egiteko, aipatutakoaz gain, behaketa ere garatu behar da ingurune irekian, eta adingabe/gazteekin eta baliabideekin hitz egin behar da, beti.

Garrantzi handikoa da ebaluaketa aldiak errespetatzea. Izan ere, ebaluaketa ekintzetara zuzendurik badago, proiektuak berrikusi edo proiektu berriak diseinatu ahal izango dira, edozein kasutan ere, egin beharreko lana dena.

Komunitatea aztertzeak gutxienez lau hilabete iraun beharko luke –lau urtean behin–, eta, Programa jadanik ezarrita dagoenean, bateratu egin beharko lirateke azterketa egitea eta proiektuak mantentzea. Kontuan hartu behar da, esku hartzeari buruz sakonkiago hausnartzeaz eta, kasu bada, esku hartzea birbideratzeaz ari garela, berez; baina, baita ere, eskuartzearen ebaluaketa, hausnarketa eta birbideratzea etengabe landu behar diren alderdiak direla (proiektu bati ekiten edo ebaluaketa egiten zaion bakoitzean, hain zuzen).

Behin programa udalerrian ezarrita dagoenean, komunitatearen azterketa eta jadanik eginda dagoen programaren bukaerako ebaluaketen sintesia batu egingo dira.

Komunitatearen azterketak, une horretan hurbilerrazak diren adingabe eta gazteak eta inguruneak hartuko ditu; programa jadanik ezarrita badago, berriz, lehentasuna eman zaien adingabe eta gazteak eta inguruneak hartuko ditu, beti ere aurreko esperientziaren arabera (ebaluaketen sintesia), eta udaleko gizarte zerbitzuek une horretan dauzkaten datuen arabera.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Bigarren atalean, Programaren plangintza sistemari buruzkoan, zehatz-mehatz deskribatzen dugu komunitatearen azterketa; horrez gain, hasierako banakako eta taldekako ebaluaketarako tresna (ebaluaketa fitxa), eta banakoari eta taldeari buruzko txostenak egiteko eskema aurkezten ditugu.

Hezitzaileen ekarpenak

Hasierako ebaluaketak sistematikoa izan behar du, eta "hasierako ebaluaketako fitxa" azaltzen diren alderdi gehienei buruzko informazioa jaso behar du. Izan ere, adingabearen egoeraren zein adingabearen beraren osoko irudia lortu nahi baitugu, denboraren poderioz osatuko dena.

Gainera, harremanetan hasteko, adingabe edo gaztearen erritmoak, gaitasunak, erreakzio ereduak, eta abar ezagutzea ere garrantzitsua da.

Adingabe edo gazteekin lehendik harremanik ez badago, hasierako kontaktua eta pertsona eta taldeekin harremanetan hastea fase honetan gertatzen da.

Programa lehen aldiz ezarri den udalerrietan, "komunitatearen azterketak" sorrarazitako harremanari esker, ondokoa burutu ahal izan da:

- hezitzaileek eta adingabe eta gazte ugari elkar ezagutu ahal izan dute oso azkar;
- kalean gazte askok dagoeneko ezagutzen dituzten eragile gisa azaldu ahal izan dira hezitzaileak; gazte horiek hasieratik beste gazte batzuk ezagutzera bideratutako kontaktu ekintzetan parte hartutakoak ziren;
- adingabeak eta gazteak kalean bertan ezagutzeak Programaren ahalbideetan konfiantza sorrarazi du ikastetxeetan, adingabe eta gazteon egoerak ikastetxeko lehendabiziko koordinazio bileretan adierazi izan direnetan;
- hausnarketa eta eztabaidaren bidez (azterketen garaian ere sortuak) astialdiko talde guztien artean harreman irekia sortu da, eta horri esker taldeak irudi neutral gisa azaldu ahal izan dira, komuneko proiektuak sortu eta garatzeko prest daudenak.

Adingabe eta gazteak hezitzaileengana deribatzeari dagokionez, deribatze horiek, orokorrean, ikastetxeetatik eta gizarte zerbitzuetatik bertatik egiten dira.

Adingabe edo gaztea ikastetxeak deribatzen duenean, adingabe edo gaztearekin egin beharreko kontaktua kalean egiten da. Komunitateko gizarte zerbitzuek deribatzen dutenetan, berriz, familiarekin esku hartzen bada, edo adingabe edo gazteak bere egoera argi eta garbi ezagutzen badu, gerta daiteke kasuaren ardura duen gizarte langileak ere adingabe edo gaztea aurkeztea.

Hezitzaileen ikuspuntutik, beste gizarte eragile batzuek maizago deribatu beharko lituzkete adingabe edo gazteak (elkarteak, osasun zentroak, ...).

Adingabe eta gazteekin, kontaktuari eta hasierako harremanari ekitea

Jadanik adierazi dugun bezala, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekiko kontaktua eta hasierako harremana komunitatearen azterketaren ondorioz edo programarantz

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

egindako deribatzearen ondorioz gerta badaiteke ere, gehienetan bereiztutako fasea izaten da, eta luzeagoa ere bai.

Hezitzaileen ekarpenak

Kontaktua beste profesional batzuek egindako aurkezpen zuzenaren bidez gauza daiteke, baina ez da guztiz bide egokitzat hartzen.

Mesedegarria da, hala ere, kalean kontakturik egiterik ez dagoen kasuetan; edo adingabeek baliabideetan egiten dituzten ohiko ekintzetan parte hartzearen bitartez ezin denean.

Kontaktua kalean gertatzen denean, jadanik ezagunak diren beste adingabe edo gazteen bitartez egiten da; bestela, hasierako hitzezko kontaktua ahalbidetuko duen gertutasun fisikoa bilatzen da, gero harremanaren maiztasuna areagotu, hezitzailearen betebeharra argitu (adingabe edo gazteek hezitzailearen eginkizun batzuk sumatuak izango dituzte prozesuan zehar), eta guztionak diren helburuak bilatzen dira. Hurrengo pausua banakako hezkuntzako proiektua izango litzateke, gehienetan hezitzaileak proposaturik, edo taldekako hezkuntzako proiektua, gehienetan koadrilak proposaturik.

Informazioa, orientazioa eta deribatzea (lehenengo programa)

Informazioa eta orientazioa adingabe eta gazteei zein inguruneen (familia, baliabide komunitarioak, ...) eskainitako zerbitzua da.

Egindako balorazioaren arabera, adingabeak edo gazteak komunitateko gizarte zerbitzukoak ez diren baliabideetara edota ekintzen berezko eskaintzara deribatuko dira.

Adingabe edo gazteei arreta eskaintzea edo haiek deribatzea kasuaren arduraduna den gizarte langilearekin batera erabaki behar da.

Balorazioa egin ondoren, programatik erabakitzen bada esku hartzea, fase hori eta banakako edo taldekako hezkuntzako proiektuen diseinua batera egin daitezke.

Informazio, orientazio eta deribatze eginkizunak hasierako banakako edo taldekako ebaluaketa aldeztu aurretik egin ondoren betetzen dira, baina esku hartzen den edozein momentutan ere egin daitezke.

Deribatzea eta igarotzeko proiektuen barruan egiten den bitartekotza oso loturik daude (igarotzeko proiektuak, berez, landuago eta jorratuagoak diren deribatze prozesuak izaten dira).

Programazioa

Programatik egindako eskuartzearen programazioa

Jadanik adierazi dugunez, komunitatearen azterketa egin ondoren (Programak hartzen duen lurraldeko inguruneetako eta adingabe eta gazteen premien eta baliabideen ebaluaketa),

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

hurrengo lau urteetarako alderdi estrategikoak eta programaren estrategia antolatzen dira, eta, maila lokalean, lehenengo bi urteetarako programaren garapenerako plangintza.

Alderdi estrategikoak eta estrategiak programaren garapeneko helburuak dira epe ertain-luzean (lau urte) esku hartzeari eta kudeatzeari dagokienez.

Programaren Garapeneko Plana, maila lokalean, lehen bi urteetarako lehentasuna duten alderdi estrategikoak eta estrategiak garatzen dituen kudeatze plangintza da.

Alderdi estrategikoek eta estrategiek nahiz maila lokalean egindako Programaren Garapen Planak alde batetik, eta lurralde historiko mailako Kontsortzioaren plangintza estrategikoak eta programaren garapen planak bestetik, elkarren arteko loturaren bat eduki behar dute.

Tresna horiek Programaren planifikatze sistema deskribatzen dugun atalean aurkezten ditugu.

Banaka, taldeka, igarotzeko prozesuan eta komunitatean esku hartzeko programazioak

Banakoari, taldeari eta inguruneei dagokien programazioa banakako edo taldekako ebaluaketetan oinarritzen da, eta edozein unetan abiarazi daitezkeen banakako, taldekako, igarotzeko edo sentsibilizatzeko proiektuetan gauzatzen da.

Proiektu guztiak programazio fitxa bakar batetik sortzen dira; fitxa hori helburuak hipotesien bidez formulatzeko sisteman oinarrituta dago, eta programaren planifikatze sistema aurkezten dugun atalean deskribatuta dago.

Programazioaren barnean, egin beharreko proiektuaren ebaluaketa dago, programazio fitxan bertan sartuta (ebaluaketako adierazleen formulazioa, programaren adierazle sisteman oinarrituta).

Banakako, taldekako eta igarotzeko hezkuntzako proiektuek eta azpitalde jakinei zuzendutako sentsibilizatzeko proiektu batzuek, dagoeneko adierazi dugun bezala, loturik egon behar dute.

Hezitzaileen ekarpenak

Hezkuntzako proiektua antolatzeko (banakakoa, taldekakoa edo komunitatekoa) premia egoera dagoela onartu behar da, komuneko helburuak finkatu eta hezkuntzako harremanen bitartez aldaketak bilatu behar dira (bai adingabe edo gazteen kasuan, bai baliabideen eta, orokorrean, komunitatearen kasuan).

Prozesu hori oinarritzakoa da banakako eta komunitateko proiektuetan. Taldekako proiektuetan, berriz, adingabe edo gazteek beren premiak adieraztea taldeak egiten duen presioaren baitan egon daiteke, baina, dena den, koadrilarekin helburu batzuk adostu behar dira (hau da, ekintza zertarako egiten den, ekintza egiteko baldintzei oso lotuta).

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Hezkuntzako proiektuak burutzeko premia zein egokitasuna baloratu behar dira beti, alderdi horiek bereziki aintzat hartuta.

Banaka eta taldeka hezkuntzan esku hartzea (hirugarren programa)

Behin esku hartzea programatuta ekin egiten zaio eta, aldi berean, adingabe eta gazteekin hezkuntzako harremana indartzen da, esku hartzea estreinako aldiz planteatu bada.

Aldez aurretik banaka eta taldeka esku hartzerik egon ez bada, ohikoa izaten da, igarotzeko proiektuekin hasi baino lehen, banakako edo taldekako eskuartzea proposatzea. Igarotzeko proiektuei ekingo zaie, baliabide edo ingurunean txertatu nahi diren adingabe edo gazteen banakako hezkuntzako proiektuak eta taldekakoa(k) ebaluatu ondoren.

Behin ebaluaketa eginda, eta igarotzeko prozesuaren barruan, informazio, orientazio eta deribatze eginkizunak beteko dira berriro eta, baita ere, adingabe edo gazteei zuzendutako hezkuntzako eginkizunak.

Hezitzaileen ekarpenak

Banakako hezkuntzako eskuartzearen barruan garrantzitsua da adingabe edo gazteari jarduerak proposatzea, beti ere haren erritmoak errespetatuz. Jarduerei erantzun baikor zein ezkor emanda ere, adingabe edo gaztearen barnean zerbait mugitzen da eta aldaketa txikiak gertatzen dira.

Horrez gain, funtsezkoa da konfidentzialtasuna eta adingabe edo gazteen guneak eta momentuak errespetatzea, maitasuna, ilusioa, kezka, interesa, e. a. eskaintzea, emozioetan defizita edo gabezia konpontzeko; familiaren laguntza bilatzea, eta, ahal bada, familia adingabe edo gaztearen hezkuntzako prozesuan inplikatzeko; eta, bereziki nerabezarotik aurrera, adingabe edo gaztearekin hausnarketa uneak sortzea haien egoeraz, bidez edo garapenak eduki ditzakeen norabide alternatiboez jabetzeko,

Komunitatean esku hartzea (laugarren programa)

Igarotzeko proiektuek barne hartzen dute arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitzera bideratutako eskuartzea, bai adingabe edo gazteen taldeari zuzenduta, bai baliabideei edo inguruneari zuzendutakoa. Igarotzeko proiektuek, halaber, adingabe edo gazteen eta baliabide eta inguruneen artean dagoen elkarreragina aintzat hartzen dute (bitartekotza).

Baliabideetara edo inguruneetara igarotzeko prozesua aurrerago aurkeztuko dugu, programak arrakasta izan dezan oinarritzkoa baita.

Igarotzeko prozesuak berak berekin dakar ebaluaketa-programazio-ekintza-ebaluaketa ziklo batzuen garapena, jarraipen fasearen ondoren, eskuartzea behin betiko itxi baino lehenagokoak (prestakuntza, txertatze eta jarraipen fasea).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Hainbat kasutan, lehendik zegoen baliabidea egokitu beharrean, arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteen ezaugarriei egokitutako baliabidea sortzea beharrezkoa gerta liteke. Eskuartze mota hori igarotzeko proiektuetan eta laugarren programaren barruan daude.

Bukatzeko, komunitatearekin esku hartzeak komunitatearen sentsibilizatzeko proiektuak eta boluntarioak (gizartekoak, kulturakoak, astialdikoak, ...) bultzatzeko proiektuak ere hartzen ditu. Boluntarioak bultzatzeko proiektuak, hain zuzen, baliabide berria sortzea beharrezkoa duten igarotzeko proiektuei loturik egongo dira.

Hezitzaileen ekarpenak

Komunitatean esku hartzeari dagokionez, garrantzizko alderdi batzuk dira ondokoak:

Independentzia eta autonomia jarreretatik abiatu beharrean, elkarren arteko lanari eta lankidetzari eustea, erakunde guztiekin batera eta protagonista izateko edo nagusitzeko asmorik gabe.

Lan egiteko orduan, "berriketak" baztertzea eta jarduera zehatzei ekitea, proposatutako jardueretan inplikaturik egonda ala egon gabe.

Elkarte bakoitzaren jardunbide independenteak errespetatzea.

Haien onura zaintzea (komunitatearen onura baita), eta guztien onura modu berean, bereizkeriarik gabe, zalekeria edo nabarmenkeriarik azaldu gabe.

Haien laguntza aintzat hartzea (lokalak, ardura pertsonala, ...), eta haiei laguntza bera eskaintzea.

Inposaketarik ez egitea; aitzitik, ahal den neurrian eta guztien artean, teknikarien eta boluntarioen artean, ideiak ateratzea.

Komunitatean egiten duten lanaren irudi baikorra islatzea.

Har gaitzatela, eta gu senti gaitezen, komunitateak bere arazo eta zailtasunak konpontzeko egiten dituen ahalegin guztien partaide.

Erakundeen artean lotura lana egitea, zuhurtasunez eta komunitatearen errealitatea ezagutuz.

Haiekin ditugun harreman onak oinarri, bakoitzari buruz argi eta garbi hitz egitea haien eta gure jardunei buruz, egiten dituzten eta egiten ditugun analisiei buruz, komunitatearen errealitatez dauzkaten eta dauzkagun ezagupenei buruz.

Urtean zehar, elkarre bakoitzarekin bilera egonkorrak egitea, iragandako ekitaldia baloratzeko eta hurrengoaren gainean informatzeko.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Normalizatutako elkarte eta erakundeek ezaugarria da sistema itxikoak izatea (arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen partaidetzari begira), eta kosta egiten zaie gizarteko erantzun malguak ematea. Gure lana sistema hori pixkanaka irekitzea da, dagoen errealitate aldakorrari egokituago dauden erantzunak emanez.

Komunitateari buruz eztabaidatzeko, analisiak egiteko, hausnartzeko guneak sortzea, alor ezberdinetatik egiten ditugun ahaleginak batzeko balio dutenak eta komunitatearen premietatik ahalik eta hurbilen daudenak.

Gure gizarteko bitartekotza eginkizunaren bitartez, erakunde, organismo, eta abarren arteko harremana sustatzea.

- Maila lokaleko beste arreta sistema batzuekiko koordinazioa:

Gure lana sistema guztiekin egitea (kultura, hezkuntza, osasun, gazteria, e. a.) teknikarien bitartez, alor bakoitzari errespetua eta konfiantza eskainiz eta komunitatearen bizimodua hobetzea garrantzitsuenak dela kontuan izanda.

Alor bakoitzak helburu zehatzak dituela eta horietako bakoitzaren ekarpenez esku hartzea tinkoago egiten dutela onartzea.

Garrantzitsua da adingabe edo gaztearekin esku hartzen duten alorrek informazioa biltzea eta aurrean daukaten egoera-arazoa hobetzeko estrategia koherenteak adostea. Era berean, garrantzitsua da esku hartzeari buruzko hausnarketa egiteko eta hura elkarren artean ebaluatzeko guneak sortzea.

Koordinazio bilerak zentro guztietan egitea (eskolak, osasun zentroak, udal departamentuak, elkarleen lokalak, e. a.).

Ebaluaketa

Bukaerako banakako eta taldekako ebaluaketa

Banakako eta taldekako eskuartzea ixtea aipatu dugu jadanik; ixte hori eskuartzearen ebaluaketa egin ondoren burutuko da, eta barruan adingabe edo gaztea inguruneetan nola txertatu den ebaluaturik egongo da.

Ebaluaketa horri bukaerako banakako edo taldekako ebaluaketa deritzogu. Ebaluaketa horrek eta hasierako ebaluaketak ezaugarri berak dituzte. Biek elkarri erabat loturik egon behar dute eta baita programazioari ere (test-retest).

Hasierako ebaluaketaren (abiapuntuko egoera), programazioaren (lortu nahi den egoera) eta bukaerako ebaluaketaren arteko jarraipena (helmugako egoera) ezinbestekoa da, eta adierazle sistemaren bidez bermatzen da. Planifikatze sistema aurkezten dugun atalean azalduko dugu alderdi hori zehazkiago.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Hezitzaileen ekarpenak

Argi dago, adingabe edo gaztearen egoeran aldaketa handirik lortu gabe ere gerta daitekeela eskuartzea ixtea.

Hori adingabe edo gaztearekin zailtasunak daudelako gertatzen denean, ez da komenigarria izaten harremana erabat eten delako mezurik bidaltzea, alderantziz baizik, aldi bateko atsedenez hitz egin daiteke (mugak urratu dituelako, hartutako konpromisoak errespetatu ez dituelako, portaeran akats larriak egin dituelako, e. a.).

Hala eta guztiz ere, egoera oso larria denean, eta horregatik aurrera joaterik ez dagoenean, urrutiko jarraipena mantenduko da eta une larrietan laguntza eskainiko zaie, modu horretan lanaz "gogaiturik" egotea saihestuz.


Adingabe edo gazteak arazo pertsonal, familia arazo, edo bestelako arazoak direla eta etxetik alde egiten duenean, adingabe edo gaztearen familiarekin harremana izatea, ahal den neurrian, komenigarria izango da.

Programaren ebaluaketa

Programaren ebaluaketak kontuan hartzen ditu egindako eskuartzea zein kudeaketa, eta adierazle sisteman oinarritzen da.

Programaren bukaerako ebaluaketa (helmugako egoera) hasierako ebaluaketari (abiapuntuko egoera) lotuta dago komunitatearen azterketaren eta hasierako banakako eta taldekako ebaluaketaren bitartez; era berean, lotuta dago maila lokalean egiten den Programaren garapenari eta proiektuen programazio fitxei (lortu nahi den egoera).

Dagoeneko adierazi dugunez, bi urtean behin Programaren ebaluaketa egingo da, eta, horrez gain, estrategi aldian egindako bi ebaluaketen laburpena, estrategi aldia bukatzean (lau urtean behin). Ebaluaketen laburpena komunitatearen azterketa berriari lotuta egongo da, eta azterketa alderdi estrategiko berriei eta maila lokalean egingo den programa garatzeko plangintza berriari.

ESKU HARTZEKO PROZESU OROKORRAREN FLUXUAREN DIAGRAMA

⁹ Adingabe edo gazteen profila bat al dator programa ereduan eta udal programa garatzeko plangintzan ezarritako lehentasunetan aurreikusitakoarekin?, ba al dugu esku hartzerik?, adingabe, gazte edo taldeak esku hartzerik onartzen du?

¹⁰ Eskualteazeara ixteko ez da beharrezkoa arrisku egoerak guztiz desagertzea (bai, ordea, adingabe edo gaztearen egoera orokorrean nolabaiteko oreka egotea), ezta adingabe edo gaztea gizarte-komunitateko baliabideetan txertaturik egotea, jadanik adierazi dugun bezala.

4.4.3.2. BALIABIDEETARA IGAROTZEKO PROZESUA

Arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteak hezkuntzako baliabide normalizatu (herritar guztiei zuzenduak, gehienetan haur eta gazteei) formal eta ez formaletara igarotzeko prozesua oinarritzakoa da, programaren helburuak bete ahal izateko (baliabide eta ingurune normalizatuetan txertatzea).

Adingabe edo gazteei zuzendutako ekintzak taldekako proiektuak dira, igarotzeko proiektuen barruan daudenak. Baliabide edo inguruneen zuzendutako ekintzen eraginez egokitutako baliabideak sor daitezke, edo lehendik zeuden baliabideak egokitu. Sortu beharreko baliabidea kogestionatutako baliabide edo proiektua izan daiteke hasieran, eta prozesua bukatzean gazteek beraiek kudeatuko dute.

Igarotzeko proiektuen eragileak, fase guztietan, adingabeen hezitzaileak, adingabe edo gazteak berak eta adingabe edo gazteak txertatu beharreko baliabide edo inguruneen "hezitzaileak" dira.

Igarotzeko proiektuek, beraz, kogestioaren oinarria eduki behar dute, eta eragileen arteko gaitasunak transferitzea bultzatu behar dute (hezitzaileak-adingabeak, kaleko hezitzaileak-baliabide edo inguruneetako hezitzaileak).

Normalizatutako baliabideetan txertatzeko prozesua adingabe edo gazteekin harremanetan hasi eta handik gutxira has daiteke; gehienetan, hala ere, gerta daiteke, programaren hezitzaileen berezko ekintzen eskaintzaren barruan, prestakuntzako aldi luzeagoa behar izatea. Edozein modutan ere, taldekako proiektuak adingabe eta gazteen prestakuntzako proiektu orokorrak izaten dira, eta adingabe eta gazteak normalizatutako ingurune eta baliabideetan txertatzea dute helburu.

Igarotzeko proiektuak, gehienetan, adingabeen taldeei zuzenduta egongo dira, baina adingabe edo gazte bakar bat txertatzea ere bultzatu daiteke.

Prestakuntza fasea

- Hasierako ebaluaketa

Kaleko hezitzaileek, adingabe edo gazteekin batera, adingabe eta gazteen premiak, interesak, e. a., zein txertatzeko aukeratu duten baliabidean parte hartzeko, dauzkaten gaitasunak ebaluatuko dituzte.

Kaleko hezitzaileek, era berean, adingabeak sar litezkeen baliabide edo inguruneekin batera ebaluatuko dituzte adingabe eta gazteen premiak, interesak, e. a., eta arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteen partehartzea bultzatzeko dauzkaten gaitasunak.

Adingabeen taldearen zein baliabideen premia eta gaitasunen arabera, baliabidearen aurre hautaketa egingo da, programaren hezitzaileak, adingabe edo gazteak eta dena delako baliabidea adostuta.

Behin adingabe edo gazteak txertatu beharreko baliabidearen aurre hautaketa eginda, fase horretako lan proposamena egingo da, berriro ere hiru alderdiak kontuan hartuta.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Igarotzeko prozesuaren lehen fase horretan, programaren hezitzaileek ekingo diete adingabe edo gazteak prestatzeko ekintzei, alde batetik, eta baliabideak prestatzeko ekintzei, bestetik.

Igarotzeko proiektuen barruan, adingabe edo gazteei zuzendutako prestakuntzako ekintzez hitz egiten dugunean, adingabe edo gazte horiek txertatuko diren baliabideren baten aurre hautaketa egin dela ulertzen dugu, eta prestakuntzak izaera espezifikoak duela (lehen hautatutako baliabide horretan txertatzeko gaitasun espezifikoak eskuratzea, eta ez oinarritzko ohiturak soilik; adibidez, astialdiko taldeetan, kirol taldeetan, irrati lokaletan, eta abarretan sartzeko).

Baliabide edo inguruneen barruan egiten diren prestakuntzako ekintzen helburua baliabide edo ingurunea adingabe edo gazteen ezaugarriei egokitzea da; horretarako, baliabideko "hezitzaileak" adingabe eta gazteekiko harreman gaitasunetan trebatuko dira.

Prestakuntza fase horren barruan, txertatu beharreko adingabe edo gazteen eta baliabideen arteko harreman esperientzia laburrak sustatuko dira (txertatze eta bitartekotza ekintzak).

Prestakuntza fasearen bukaeran ebaluaketa egingo da. Bertan, adingabe edo gazteei (gaitasun orokor eta espezifikoak) nahiz baliabideari (baliabidearen egokitzapena) dagokienez lortu beharreko helburuak norainokoak diren jasoko da.

Bai adingabe edo gazteak, bai baliabideak prest daudela onartzen bada, txertatze fasera igaroko da.

Behin betiko txertatzea egiterik ez dagoela ikusten bada, ordea, beste baliabide baten aurre hautaketa egin beharko da.

Azkenik, prestakuntza indartu behar dela onartzen bada, beste lan proposamen bat egingo da, hiru alderdiak kontuan hartuta.

Txertatze fasea

Fase honen garapenak ebaluaketa - programazioa - eskuartzea - ebaluaketa ziklo berriari ekitea eskatzen du, eta prestakuntza fasearen bukaeran egindako ebaluaketarekin hasiko da.

Txertatze proiektuaren diseinua hiru alderdiak kontuan hartuta egingo da, berriro ere (baliabide edo inguruneko "hezitzaileak" - adingabe edo gazteak - programaren hezitzaileak). Kaleko hezitzaileek beren protagonismoa murriztu eta laguntzaile edo bitartekari eginkizuna indartu beharko lukete pixkanaka, txertatze proiektua diseinatzen den unean bertan hasita.

Kaleko hezitzaileen ekintzak, baliabide edo ingurunearen barruan, baliabideak antolatutako jardueretan parte hartzearen ingurukoak izango dira (baliabideko jardueren diseinua-garapena-ebaluaketa). Fase horretako prestakuntza eginkizunaren barruan egongo da, eta, ekintzak oinarri hartuta, baliabideko edo inguruneko hezitzaileekin batera gogoeta egingo dute.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Kaleko hezitzaileek adingabe edo gazteei zuzendutako ekintzak lehenago eskuratutako gaitasunak bideratzeko eta indartzeko izango dira.

Fase horretan, txertatze eta bitartekotza ekintzak ugarituko dira (arrisku egoeran dauden adingabe edo gazteek eta kaleko hezitzaileek parte hartzen duten baliabidearen ekintzak).

Txertatze fasea ebaluaketa batez ixten da. Bertan adingabe edo gazteei (transferentzia, ezagupenak orokortzea eta garatzea, gaitasunak, jarrera eta interes orokorrak eta espezifikoak) eta baliabideari (baliabidearen egokitzapena indartzea, adingabe edo gazteen pertzepzioa) dagokienez lortu beharreko helburuak norainokoak diren jasoko da.

Txertatzea egokitzen hartzen bada, jarraipen fasera joko da.

Txertatzea indartu behar dela ikusten bada, berriz, beste txertatze proiektu bat diseinatuko da.

Jarraipen fasea

Fase hau garatzeak ebaluaketa – programazioa – eskuartzea - ebaluaketa ziklo berria dakar berekin, eta txertatze fasearen bukaeran egindako ebaluaketarekin hasiko da.

Baliabide edo inguruneari begira, kaleko hezitzaileek egingo dituzten ekintzek kanpoko laguntza izaera edukiko dute (presentziatzeko prestakuntza, arazoen konponketa, aholkularitza, ...).

Adingabe edo gazteei zuzendutako ekintzak kaleko hezitzailearengandik behin betiko aldentzera bideratuko dira, eta, hortaz, adingabe edo gazteekin dituzten harreman informalak bakandu egingo dira.

Baliabideak antolatutako ekintzetan, Programaren hezitzaileen partehartzeak ohi kanpokoak izango dira.

Jarraipen fasea, berriro ere, hiru alderdien ikuspuntuak kontuan izanda itxiko da. Bertan, adingabe edo gazteei (transferentzia, ezagupenak orokortzea eta garatzea, gaitasunak, jarrera eta interes orokorrak eta espezifikoak) eta baita baliabideari ere (baliabideari egokitzea indartzea, adingabe edo gazteen pertzepzioa) dagokienez lortu beharreko helburuak norainokoak diren azalduko da.

Jarraian, kaleko hezitzaileek egindako lanaren deskribapenetako bat aurkeztuko dugu; horretan oinarritu gara aurkeztu berri dugun igarotzeko prozesua estandarizatzeko:

Herriko astialdi taldeetan txertatzeko proiektua

Zarautzen, txertatzeko proiektu hau Haur Kultur Taldearekin (HKT) eramaten dugu aurrera (hauek mendi irteerak egiten dituzte).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Lehenik eta behin, oinarriak finkatu behar dira prozesua martxan jartzeko.


Hasieran geuk antolatzen ditugu irteerak geure gaztetxoekin. Hasierako irtenaldietako helburuak gure arteko harremanak sortzea eta sendotzea, eta beraierengan zaletasun batzuk sustatzea izango lirateke. Adibidez, txertatzeko proiektua HKTrekin egin baino lehenago, gazteengan komenigarria da mendizaletasuna sustatzea.

Behin lehenengo pausua emanda, txertatze proiektua hasten da. Gure gazteak gonbidatzen ditugu HKTren irtenaldietara geurekin batera.

HKTkoek hamabostean behin antolatzen dituzte irteerak eta gu irteeretara joaten saiatzen gara. Helburua izango litzateke gazteek dinamika hau hartzea eta gure figura poliki-poliki desagertzen joatea. Azkenean lortu nahi duguna da gure gazteak beraiek bakarrik edo beren lagunekin irtenaldi horietara joatea.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

BALIABIDEETARA IGAROTZEKO PROZESUAREN FLUXUAREN DIAGRAMA



4.4.3.3. PROGRAMA MAILA LOKALEAN EZARTZEKO PROZESUA

Legegintzaldian zehar Programa Gipuzkoako lurralde osora zabaltzea aurreikusten da. Helburu hori izanda, beharrezkotzat jotzen dugu Programa maila lokalean gure ikuspuntutik nola kudeatu behar den argi eta garbi definitzea.

Programan parte hartzeko eskaera sortzea

Programa maila lokalean ezartzeko prozesua, udalerrian edo dena delako lurraldean, toki erakundeak programan parte hartzeko eskaera prestatzen duenean hasten da, Programak Kontsortzioan duen koordinatzailearen laguntzaz.

Programa ezarri nahi duen udal departamentuak eskaera orria -planifikatze sistemaren barruan dauden tresnen artean aurki daiteke- bete beharko du; horretarako, eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentua ez bada eskaera egiten duena, departamentu horren lankidetzaz izango du, eta Programaren koordinatzailearen laguntza tekniko ere izango du.

Programa maila lokalean ezartzeko baldintzak aurrerago aurkeztuko ditugu, baina, programa ezarri ahal izateko funtsezkoak dira hurrengo puntuak:

- Programa ezarri nahi duen departamentuko teknikari taldeak (eta, kasua bada, Gizarte Zerbitzuetako Departamentukoak) Gizarte Hezkuntzan esku hartzeko Programa Eredua eta Programa Gipuzkoan garatzeko Plana irakurtzea.
- Programa ezarri nahi duen departamentuko teknikari taldeak (eta, kasua bada, Gizarte Zerbitzuetako Departamentukoak) eskaeran parte hartzea.
- Programa ezarri nahi duen alorreko zinegotziak eta batzordeko arduradunak (eta, kasua bada, ongizate zinegotziak eta batzordeak) Programa Eredua eta Programa garatzeko Plana ezagutzea, eta departamentuko taldeak jarritako lehentasunak aztertzea.

Kontsortzioko koordinatzaileak departamentuko taldeak egindako bi bileratan, gutxienez, parte hartuko du; horietako lehenengoan Programa Eredua eta Programan parte hartzeko baldintzak aurkeztuko dira –bertan, Programa ezarri nahi duen departamentuko zinegotzi arduradunak parte hartu beharko luke; bigarren bileran, Programan parte hartzeko eskaera egitea erraztuko litzateke.

Era berean koordinatzaileak lankidetzaz eskain dezake, hala eskatuko balitz, Programa ezarri nahi duen alorreko batzordeko arduradunari Programa aurkezteko.

Bilera horietan, teknikari eta politikariek Programan dituzten itxaropenez jardun beharko dute; eta, halaber, kaleko hezitzaileak, aurreikusi bezala, beren eginkizunen arabera, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan sartzeaz.

Ikusiko denez, eskaeran definitu eta arrazoitu beharko dira jardueren lehentasunak, arreta eskaini beharreko kolektiboak eta premiei, eta elkarlanean jardun beharreko baliabideei dagokienez; modu horretan eta behin Programa ezarrita, hezitzaileek komunitatearen azterketa egin ahal izango dute, orientabide horiek kontuan izanda.

Eskaera aurkeztea

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko buruak, Programa ezarri nahi duen departamentuko buruak (kasua bada), eta Kontsortzioan Programak duen koordinatzaileak Kontsortzioko Batzorde Teknikoari aurkeztuko diote Programan parte hartzeko eskaera.

Zerbitzua eskainiko duen erakundea hautatzea (kaleko hezitzaileak hautatzea)

Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko udal programaren arduradunak –ezinbestekoa da Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko burua izatea– kaleko hezitzaileen hautaketan parte hartuko du, eta haiek egindako azterketa proposamena aztertuko du.

Hautatze prozesuak ziurtatuko du hezitzaileak egokitzea Kontsortzioak eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak zehaztutako profilari; era berean ziurtatuko du komunitatea aztertzeko hautagaiek diseinatutako proiektua, Kontsortzioak azaldutako inguruan eta udalak jarritako lehentasunen barruan.

Harrera prozesuaren diseinua

Programak arrakasta eduki dezan, hezitzaileak eta haien eginkizunak Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan sartzea, eta beste udal departamentuekin harreman ona izatea funtsezko alderdiak dira.

Prozesua behar bezala egiteko, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko buruak diseinatua izan behar du, Programan parte hartzen duten udaleko Gizarte Zerbitzuei lotutako profesionalekin batera. Ikusiko denez, hainbat hilabetez luzatuko den txertatze prozesua era jarraian ebaluatu behar da, eta prozesuaren bukaeran ere, beste ebaluaketa bat egin beharko da.

Kaleko hezitzaileei egindako harrera

Hurrengo pausuak eman behar dira kaleko hezitzaileei harrera egiteko:

- Programa ezarriko duen departamentuko taldean aurkeztea, eta bereziki Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan, hezitzaileak, bere eginkizunen arabera, horren barruan jardungo baitu.
- Aurkezpen bileran alor horiei dagozkien zinegotziek (eta egokia bada, baita dagozkien batzordeek ere) parte hartu beharko lukete.
- Hezitzaile bakoitza sartuko den Gizarte Laneko Unitateko (GLU) gizarte langilearekin edo langileekin bilera bat gutxienez egitea (GLUk hartzen duen geografia esparrua, programa bakoitzeko erabiltzaile kopurua, adingabeak dituzten familiekin egindako eskuartzea, ...).

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

- Hezitzaileak aurkeztea –azterketa fasean– udal departamentuetako erreferentziako profesionalei (kultura, gazteria, ...) eta maila lokaleko beste arreta sistemei (ikastetxeak, pedagogi aholkularitza taldeak, osasun zentroak, ...), eta azterketa fasean harremana mantendu beharreko baliabide komunitarioetako beste eragile batzuei – profesional zein boluntarioei. Bilera horietan udal programaren arduradunak egon beharko luke eta hezitzaileak nahiz programa aurkeztu beharko lirateke; gainera, programa era egokian ulertzea erraztu beharko litzateke, esku hartzean gehiegizko itxaropenik bultzatu gabe.
- Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko taldearekin edo, behintzat, Departamentuko buruarekin batera, komunitatearen azterketa orientatzea, hautatzeko prozesuan onartutako proiektuan oinarrituta.
- Komunikazio bide formalak erabiltzea, komunitatea aztertzeke fasean baliagarriak direnak (lana alderatzea, e. a.).
- Hezitzaileak kokatzea (bulegoa, ordenagailua, inprimagailua, telefonoa, faxa, helbide elektronikoa, bulegoko materiala, jardueretarako materiala, ...).
- Komenigarria litzateke hezitzaileak beste departamentu batzuetako profesionalei, komunitatean garrantzitsuak diren pertsoneri, eta abarri aurkeztea, eta udal administrazioako sarean eta lurraldean kokatzea (mapen bitartez, edo, ahal balitz, paseo ez formalak eginez).
- Komenigarria litzateke, era berean, azterketa fasean Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko taldeak bileraren bat egitea¹¹ Programa Ereduan sakontzeko.

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Udal Programaren Garapen Plana nola egin

Behin azterketa eginda, eta Programa udalerrian ezartzea ikuspuntu hartuta, funtsezkoa da hurrengo pausuak egitea:

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko taldeak zenbait bilera egitea, emaitzak ezagutzeko eta programan parte hartzeko eskaeran jarritako orientazioak ikuskatzeko.

Lan bilera horien ondorioz, hurrengo lau urteetarako udal programaren garapenaren alderdi estrategikoak eta estrategiak eratuko dira, eta horrekin batera, lehenengo bi urteetarako udal programaren garapen plana.

Alderdiak eta plana eratzeko arduradun nagusia Departamentuko burua izango da; alderdiok zinegotziarekin batera adostu beharko dira eta batzordeari jakinarazi beharko zaizkio, eta, era berean, ziurtatu beharko da programaren geroko ebaluaketa eta batzordeak jasoko duen programari buruzko informazioa une horretan adostu diren puntuetan oinarrituko direla.

¹¹ Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko taldeaz hitz egiten dugunean, udaleko gizarte zerbitzuekin, era batera edo bestera, zerikusia duten profesionalez hitz egiten dugu, eta Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programari loturik daude (gizarte langileak, kaleko hezitzaileak, e. a.).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Hezitzaile bakoitza, bere eginkizunen arabera, hari dagokion gizarte laneko unitatean (GLU) sartzea.

Behin komunitatearen azterketa bukatuta, hezitzaile bakoitza komunitateko gizarte zerbitzuetako GLUko batean sartuko da.

Azterketa bukatu aurretik, litekeena da hezitzailea sartuko den GLUko gizarte langilearekin izango den harremana jarriarik egotea: adingabe eta gazteei zuzendutako eskuartzea elkarren artean planifikatzea, espediente eta txostenak batzea, harreman ereduak, informazioa nola tratatuko den, konfidentzialtasuna, zer-nolako bilerak egingo diren eta izango duten aldizkakotasuna, e. a.

Beste zerbitzu sistema batzuekin harreman protokoloei ekitea

Gainontzeko zerbitzu sistemekin definitu behar dira alderdi horiek guztiak, behin azterketa itxita dagoenean eta esku hartzea bideratuta; modu horretan, baliabideekin harremanetan hasteko orduan, aintzat hartuko dira esku hartzean lehentasuna emandako adingabe eta gazteak (banakako eta taldekako proiektuak) zein egon litezkeen epe ertaineko igarotzeko proiektuak.

Horrela, gainera, gauzatzerik egongo ez den eskuartzearen inguruko itxaropenak sortzea saihestuko da.

Begi-bistan dagoenez, ez dugu kontuan hartu programa komunitateari aurkeztea, ezta programa maila lokaleko komunikabideei aurkeztea ere.

Aurkezpen horiek egitea beharrezkotzat jotzen bada, gehiegizko itxaropenik sortu gabe egin beharko dira, eta, batez ere, Programa, hezitzaileak eta "arazoak" dituzten adingabeak, e. a. elkarri lotu gabe. Esate baterako, ez litzateke eskolako porrot, drogen kontsumo, gazteen langabezi, delinkuentzia eta abarren inguruko kopururik eman behar.

Hori guztia kontrolatu ahal bada, aurrera jo daiteke ekintza horiekin, berez programari ezer eransten ez badiote ere, eta, gainera, programa behar bezala gauzatzeko kaltegarriak izan daitezkeen arren.


Txertatze prozesuaren ebaluaketa

Txertatze prozesua bukatzean, prozesuaren ebaluaketa egin beharko da. Horretarako, gizarte zerbitzuetako taldearen bilera egingo da, eta bertan beharrezkoak diren zuzenketak egingo dira, edo hezitzaileak eginkizunen arabera departamentuan sartzea indartuko da.

Txertatze prozesu osoan, orokorrean, komenigarria da harreman ez formalak eta elkartzeko momentuak zaintzea, ospakizunen bat egitea, e. a.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

PROGRAMA MAILA LOKALEAN EZARTZEKO PROZESUAREN FLUXUAREN DIAGRAMA



4.4.3.4. PRESTAKUNTZAKO EKINTZAK KUDEATZEKO PROZESUA

Hezitzaileen eskaeretako bat Kontsortzioak eskainitako prestakuntza indartzea da. Bestalde, Programa orokortu eta Programa eredia eta planifikatze sistema garatu nahi ditugunez, eta Programa Gipuzkoan garatzeko Plana egiteko hainbat ekintza aurreikusi ditugunez, Kontsortzioaren barruan prestakuntzarako ekintzak sustatzeko beharra ikusten dugu; ekintza horiek zuzendurik daude programaren ardura politiko zein tekniko dutenei, programan parte hartzen duten profesionalei, lankidetzak indartu nahi den beste zerbitzu sistema batzuetako profesionalei, eta, baita ere, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak normalizatutako baliabideetara igarotzeko proiektuetan elkarlanean jarduten duten gizarte eta astialdiko boluntarioei.

Ildo horretan, prestakuntza kudeatzeko sistemak eratu behar dira, eta horiek finantzatzeko neurriak hartu behar dira, Hobetuz-en bitartez edo bestelako bideak aukeratuta.

Era berean, kaleko hezitzaileek, edo programaren profesionalek, edo –eta hau onena litzateke– hezkuntzako eragile guztiek dituzten prestakuntzako premiak adieraztea egokiena izango litzateke.

Jarraian, prestakuntzako ekintzak kudeatzeko prozesua azalduko dugu. Beste kasuetan ez bezala, prozesuaren itxaropen zuhaitza eta irteera fluxu eta oinarritzko prozesuaren ezaugarriak barne sartu ditugu oraingoan. Hala ere, ez ditugu prozesuaren ezaugarriak zehatz-mehatz ematen.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

PRESTAKUNTZAKO EKINTZAK KUDEATZEKO PROZESUAREN ITXAROPEN-ZUHAITZA

HARTZAILEAK	PREMIAK (hobekuntzak jardueran)	ZERBITZUAK (Prestakuntzako ekintzak)
Gerentea	- Antolaketa kudeatzea - Pedagogia arloan koordinazio teknika erraztea	Antolaketak kudeatzea (planifikatze estrategikoa, pertsonak, proiektuak, ekonomia, hobekuntza jarraitua...) Aurrerapenak Heziketa Konpentsatorio eta Prestakuntza Okupazionalan
Batzorde teknikoa	- Aholkularitza teknika garatzea Programa gauzatzean	Plangintza, aurrerapenak Heziketa Konpentsatorio eta Prestakuntza Okupazional arloan
Programaren arduradunak	- Udal programa garatzea - Hezitzaileen hautaketan eta harreraren parte hartzea	Plangintza; maila lokalean koordinatuta, hainbat arlotako eskuartzea Pertsonen kudeaketa (hautaketa eta harrera)
Koordinatzailea	- Komunean irizpideak ekartzea, ebaluaketa eta jarraipenerako tresnak sortzea, e. a. - Hezitzaileei laguntza teknika ematea - Bilerak taldeekin, taldeak eta Kontsortzioaren artean lotura sortzea, koordinazioa, e. a. - Gatazka egoerei irtenbidea ematea - Taldeen jarraipena	- Plangintza - Proiektuak ebaluatzea - Aurrerapenak Heziketa Konpentsatorio eta Prestakuntza Okupazional arloan, beste zenbait autonomia erkidegotako antzeko programak - Informazioa kudeatzea, ezagupenak kudeatzea - Gatazkak sortzen direnean, bitartekoa izatea, eta gatazka horiei irtenbidea ematea - Ikuskatzea
Hezitzaileak	- Adingabeak banaka orientatzea - Lau urtean behin, premiak eta baliabideak ebaluatzea; proiektuak programatzea eta ebaluatzea - Egindako jarduerak balio anitzekoak izan daitezen bultzatzea - Igarotzeko proiektuak egitea	- Banakoari aholkularitza eskaintzea, orientabideak, tutoretzak - Premiak eta baliabideak ebaluatzeko teknikak, proiektuak egitea eta ebaluatzea - Esku hartzeko teknikak (astialdia, tailerrak, hezkuntzako harremana, e. a.) - Koordinazioa baliabideekin, baliabideekin lan egitea

PRESTAKUNTZAKO EKINTZAK KUDEATZEKO PROZESUAREN IRTEERA-FLUXUAREN KALITATE- EZAUGARRIAK

Kalitatea ikusmoldean (eta orientazioan)

- Lotura alderdi estrategikoekin eta programa garatzeko planarekin
- Lotura Prestakuntzako Premien Diagnosiarekin (PPD), egindako Prestakuntza Plana (beharrezko gaitasunak eta gaitasun errealak analizatzea)
- Une egokian egitea: eskatutako gaitasunen eta gaitasun errealen arteko aldearen baitan dago
- Prestakuntzako ekintzak hautatutako ikasleei egokitzea
- Hezitzaile egokiak

Kalitatea gauzatzean

- Prestakuntzaren hartzaileri egokitutako metodologia
- Egokitutako pedagogi materiala
- Erabilitako bitarte materialak egokitzea: lokalak, euskarriak, ...
- Ikasleek era aktiboan parte hartzea
- Definitutako pedagogia helburuak betetzea (orokorrak, espezifikoak, eraginkorrak = gaitasunak eskuratzea).

Kalitatea gaitasunak erabiltzean

- Gaitasunak transferitzea eta mantentzea, masa kritikoa

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

PROZESUA: Prestakuntzako ekintzak kudeatzea (prestakuntza kudeatzeko azpiprozesua)

EGINKIZUNAK	KALITATEAREN ETA ADIERAZLEEN EZAUGARRIAK			
	NOLA	NOR(K)	NOIZ	NON
Prestakuntzako ekintza diseinatzea: - Prestakuntzako Premien Diagnosiari lotzea (PPD), - hautatzeko irizpideak jartzea, - helburuak eta edukiak definitzea, e. a.	- Baldintzak: prestakuntzaz espero den ekarpena, hartzaileak, helburu eraginkorrak (gaitasunak), antolatze eta jarduteko irizpideak (iraupena, gauzatze aldia, metodologia, hornikuntza, eskatutako hezitzaile mota, ...), edukiak, hartutako gaitasunak transferitzea, eta aurrekontua.	PPDri lotzea: Batzorde teknikoa eta koordinatzailea Baldintzak: Koordinatzailea	PPDren emaitzak edo prestakuntza premien analisi puntuala jaso ondoren	Bulegoan
Ebaluaketaren diseinua	- Ebaluaketa adierazleak baldintza pleguaren eta ebaluaketa maila ezberdinen arabera (pedagogi kalitatea, gauzatze kalitatea, orientazio kalitatea, ...). - Prestakuntza ikastaroak ebaluatze galdeketa, laneko gaitasunen behaketa fitxa,..., edo ebaluatze beste teknika batzuk	Koordinatzailea	Prestakuntza diseinatzearekin batera	Bulegoan
Hezitzaileak hautatzea eta kontratatzea	- Enpresaren hautaketa irizpideetan oinarrituta (prestakuntzako ekintzen eskakizunak betetzen dituzten hezitzaile profilak) - Baldintzen arabera kontratazioa, 10-T zerga inprimakian azaldu beharreko datuak edo fakturazioa, irakasle fitxa,...	Koordinatzailea	Baldintza plegua diseinatu ondoren	Bulegoan
Informazioa eta orientazioa	- Prestakuntza programak egitea - Ikasleak izan litezkeenei jakinaraztea	Koordinatzailea	Hezitzaileen prestakuntza eta kontratazioa diseinatu ondoren	Udalerrietan, bilerak hartzaileekin
Ikasleen hautaketa	- Elkarriketak, gaitasun, ibilbideak, ... - Onartutako ikasleen zerrenda	Koordinatzailea	Informazio eta orientazioaren ondoren	Udalerrietan, bilerak hartzaileekin Bulegoan

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

KALIA TE – ADIERAZLEEN EZAUGARRIAK				
EGINKIZUNAK	NOLA	NOR(K)	NOIZ	NON
Pedagogi txostenak egitea	- Prestakuntzako ekintza bakoitzeko eta hezitzaile bakoitzeko txosten bat, baldintzen eta hautatutako ikasleen arabera - Prestakuntzako ekintzaren programazio eraginkorra: helburu eraginkorrak, metodologia, materialak, jarduerak, programazioa, ...)	Hezitzaileak	Kontratatu ondoren	Prestakuntza egiten duen erakundearen lokaletan
Eskola ematea	- Prestatutako hezitzaileak - Materialak egokiak izatea eta garaiz eskuratu ahal izatea - Aurreikusitakoaren arabeko metodologia - Ordutegiak - Edukiak - Lokal eta bitarte egokiak	Hezitzaileak + ikasleak	Programazio eraginkorraren ondoren, eta txostena gutxienez egiten hasita dagoela	Geletan
Prestakuntzako ekintzen ebaluaketa	- Ikasleei galdeketa ematea - Lan ingurunean behaketa fitxa erabiltzea	Hezitzaileak + ikasleak Ikuskatzaileak lanean	Eskola eman bitartean eta eman ondoren	Eskola ematen den lekuan, lantokian
Prestakuntzako ekintzak kudeatzeko hobekuntzak	- Berriz programatzea eta/edo pedagogi txostenak berregitea	Koordinatzailea + hezitzaileak	Gauzatzea eta erabiltzea ebaluatu ondoren	Bulegoan Prestakuntza egiten den erakundearen lokaletan

PRESTAKUNTZAKO EKINTZAK KUDEATZEKO PROZESUAREN FLUXUAREN DIAGRAMA

